

EGUNARI BELDUR

Ane Saiz Moreno

Laudio

Oraindik ez nekien zer zen goizean esnatzea eta eguzkiaren distira ikustea, gau ilunaren beldurra eta arriskua baizik ez nituen ezagutzen.

Parkeko eserlekuan lagunekin pasatzen nituen arratsaldeak eta gauak, kuadrilla ona ginen eta antza, zeresana sortzen genuen herrikoek artean. Umeen aurretik pasatzean, haien gurasoek besotik heltzen zieten guri hurbil ez zekizkigun; leihoetan edo erosketetan aritzen ziren andreak, gure gaineko txutxu-mutxuetan aritzen ziren.

Arrats Aldaikoetxea Otxoa naiz, eta Bilboko San Frantziskon bizi nintzen, baina egia esan, gehienentzat “*Aldaiko*” nintzen. 20 urte nituen eta nire adineko besteek bezala, futbola maitatzen nuen gauza guztien ginetik, eta futbolearen aritzen nintzenean, ase nintzen, ez zegoen munduan besterik.

Gurasoekin bizi nintzen, ama langilea, jatorra, eredugarria, asko sufritutakoa, txikitan umezurtz geratu baitzen, eta bakarrik hazi zen; horregatik esan daiteke, mizke hazitakoa naizela, nahi izan dudana guztia eman didatela. Aitak hiru urte eman zituen lanik egin

gabe, istripua izan, elbarritu eta ezin baitzuen lanik egin. Diruz larri ibili ginen. Berarekin gauza asko partekatzen nituen, aita ere futbolzale amorratua baitzen, eta nitaz oso harro zegoen.

Istripuaren ezbeharra gertatu ondoren, denbora aurrera zihoan, dena ondo zihoala zirudien baina, tupustean, medikuek aitari minbizia igarri zioten, berandu zen, bizirik zegoena, min izugarri hori baino ez zen, hil biko bizi-itxaropena eman zioten aitari. Gorputz osora zabaldu zitzaion. Aste biren buruan, minak biziari aurre egin, eta gure aita behin betiko loak hartu zuen.

Amak, denbora gutxira, Gorka ezagutu zuen, bera baino 12 urte gazteagoa, berehala konturatu nintzen harroputza, burugogorra eta jeloskorra zela oso. Ama lelotuta zegoen berarekin, ni berriz, nazkatuta. Gauero ateratzen ziren, egunsentira arte, lehenago bizi izan ez zutena, orain ari ziren gozatzen, ni bitartean etxean bakarrik. Amak gurekin bizitzera ekarri zuen, ni ez nengoen ados, asko kostatu zitzaidan beste gizon bat ezagutzearena, baina onartu egin beharra, oraingoan, bera edo ni artean aukeratzeko esan nion, baina ez zuen erantzunik eman eta *“Arrats, zulotik atera, beti iraganean, gizon ona da, eta ondo zaintzen gaitu”*.

Berarentzat oso erraza zirudien aitarekin bizitzeko guztia ahaztea, ez nuen errudun egiten, baina gauzak nire ustetan, oso azkar egiten zituen amak. Ni berriz iraganari helduta, bizitzan geratzen zitzaidan bakarra, aitaren oroitzapen batzuk eta bakardadea, itsasoa bete bakardade.

Lagunekin hazi nintzen, gau eta egun ematen genuen banku batean eserita, kotxeez edo “mujeres hombres y viceversa” saioan agertzen ziren neskez hitz egiten. Egunez porroa eskuetan, barre eragiten eta gaez litroak edaten gaua motzagoa egiteko.

Neska bat ere ezagutu nuen jaietan, hamazortzi urte zituen eta Maialen zuen izena, antzeko egoera geneukan, berari hamabost urte zituela, ama eta neba istripu batean hil zitzaizkion. Aitarekin bizitzen Basaurin, ikastolako sarrerara, bila joaten nintzaion eta eguna pasatzera joaten ginen. Bere lagunek esaten zioten “*Berriro zoaz, umezurtz horrekin, ikasketa eta lanbiderik gabeko lerdo horrekin*”, nire erantzun bakarra motorraren zarata, noizbehinka atzamarra ateratzea edo “*Aberaskume nazkagarriak!*” oihukatzea.

Etxean gauzak ez zihoazen ondo, amak egun osoa ematen zuen Gorkarekin, gehienetan liskarretan, eta amaren begietan, beldurra sumatzen nuen, askotan esaten nion: “*Ama, pikutara bidali!*” baina amak erantzunik ez, beti isilik, mutu, kantoietan negarrez. Nekatuta nengoen, beti Gorkaren esanetara, baina ez nintzen ausartzen ezer esatera, begietara begiratzen nion bakoitzean, potroak ahora etortzen zitzaizkidan.

Konturatu nintzen, ezin genuela horrela jarraitu, ia ezagutzen ez nuen tipo bat nire etxean, ama eta niri arauak jartzen, zer uste zuen? Orduan amaren aurrean, serio jarri nintzen: “Ama, nekatuta nago, ospa egin dezagun hemendik, utz diezaio-

gun sufritzeari”, amak: “Zoaz zu, ni berarekin geratuko naiz, sentitzen dut ikusten duzun guztia, Arrats” bere erantzunak min egin zidan, baina ez nintzen hor geratuko. Maialenek berarekin joateko proposatu zidan, eta bi aldiz pentsatu gabe, amari dirua hartu eta hozkailuan ohar bat utzi nion: *“Hitzekin min egiten dizun gizonak, ez zaitu merezi. Orain hitzak eta batek daki geroak zer dakarren? Badakizu non nagoen, hemen naukazu edozertarako. Maite zaitut”*.

Maialenen etxean giro lasaia zegoen, futbolari bezala handitzen joan nintzen eta Maialen eta bere aita partidu guztiak ikustera etortzen ziren. Gauero afaltzera joaten ginen eta gero Rock Star-era lagunekin. Eguerdi batean, telebistari begira, emakume bat indarkeria matxistaren ondorioz hil zela esan zuten, ez dakit zergatik, baina ama izan zitekeela pentsatu nuen, begiak itxi nituen, egia jakin nahi ez nuelako, eta kazetariak esan zuen *“Marisa Otxoa, 45 urteko emakumea izan da, urteko beste biktima”* bihotza apurtu zitzaidan momentu horretan, nire burutik igarotzen zen gauza bakarra kolpatu eta hil egin zuen puta seme hori, hilko nuela. Korrika alde egin nuen Maialenen etxetik, ezer esan gabe, nahi nuen gauza bakarra, txoriburu hori harrapatzea eta akabatzea.

Etxe aurrean nengoen ikara oinean, auzoko kuxkuxero guztiak muturra sartzen, beti bezala, informazio pixka baten bila, gero, herrian zabaltzeko. Aurrera egin nuen, narras, nire inguruan entzuten nuen *“Koitadua, lehenengo aita eta orain ama ...”*

gehienek gauza bera esaten zuten, beste batzuk “Zelako bihotz mina ematen didan mutiko honek” hori bai gorrotatzen nuela, nire helburua ez zen pena ematea ... Hor zegoen ama, poltsa batez estalita eta udaltzaingoz inguratuta, betiko agur esan nion. *“Bakarrik utzi zintudan gehien behar ninduzunean, baina zurekin izango nauzu ama, bikaina izan zara, aita aurkitzen duzunean esaiozu, inoiz ez dudala ahaztu eta asko maite dudala, ikaragarri maite zaituztet”*. Etxe barrura sartu nintzen, nire oharrak hozkailuan jarraitzen zuen, baina oraingoa, erantzun eta guzti:

Arrats maitea, ez dakit hau irakurriko duzun, bizitzan gauzak oso txarto atera zaizkit, beti ikasi dut bizitzan bakarrik ibiltzen, badakizu, eta zu gabe ahalko nuela pentsatu arren, azkenean ezin izan dut.

Zutabea izan zara nire bizitzan eta beti izango zara, badakit aita galtzea zaila izan dela, aita joan zenean zu zoriontsu egiteko eskatu zidan, eta esan zidana ukatu egin nizun, baina orain bete ezazu aitaren desioa eta, zoriontsu izan! Zeure buruari galdetuko diozu zergatik joan naizen, zuk esan zenidan bezala, etxetik ospa egin behar nuen, geroak zer dakarren galdetzen zenuen, geroak hil egiten ninduen pitinka, desagertu arte. “Gizon” horrek jipoitu egiten ninduen, eta bai, kaxotxan artean irakurtzen duzu, jipoitzen duen gizona, gizon ez delako. Isilik geratu nintzen, inori ezer esan gabe, oihurik eta hitzik eman gabe, beharbada damutuko zait, eta beharbada, errudun bakarra neu naiz, baina nik neuk aukeratu nuen. Asko maite zaitut, Arrats.

Negarrez atera ninduten etxetik, kanpoan Maialen nuen zain, besarkada erraldoia eman zidan, lasai egoteko eskatuz.

Badira bost urte ordutik, bizitza honi tiraka, aita-ren eta amaren faltarekin bizitzaz gozaten ikasten, goizero esnatzen eta nor naizen galdetzen diot ispi-luari. Ingurura begiratu, baina ez dago inor. Maialenekikoa bukatu zen, azkarra izan zen, ez ziztaion gustatzen ikusten zuena, eta nirekin amaitzea aukeratu zuen, beti esaten zidan: *“Maitemindu nintzen pertsona desagertu da, Arrats, ez zara berbera”*.

Gauero jartzen nizkion adarrak beste emakume batzuekin eta etxera mozkortuta ailegatzen nintzen beti. Oso ondo portatu da beti nirekin, eta nik horrela ordaintzen nion, gaur egun damutu egiten zait, maitatzen nuen neska zen, eta lagunei kasu egiteagatik gertatu zen. Lagunak, ez ziren lagunak, beharbada komatxo artean jarriko dut *“lagun”* hitza. Ordura arte lagun izan zirenak, desagertu egin ziren, orain ez daukat adiskiderik, bakarrik nago.

Parkean txikitatik izan nituen guztiek ez zuten nitaz ezer jakin nahi, ez nintzaien axola, galdutzat hartzen ninduten eta egia esan galduta nago, oso. Mundu beltz batean mugitzen nintzen, niretzat garrantzia zeukan bakarra kontsumoa zen, drogak, gaua bizi eta hurrengo egunean atzokoaz ez oroitzea. Egunari beldurra hartu nion, egunari eta eguzkiaren argi izpiei.

Bizitza nazkante honetan sartzen hasi nintzenean, futbola alde batera utzi, amets bat betetzera

zihoan unean, haizeak, ilearekin jolasten duen bezala nire ametsa eraman zuen.

Aitarekin akordatu, eta bera zelan sentituko zen imajinatzen saiatzen nintzen, ni horrela ikusita; ez nuen, ordea, indarrrik zulo zikin honetatik irteteko.

Benetako laguntza behar nuela konturatu nintzen eta aldatu behar nuela. Orduan, espezialista bati laguntza eskatzea aukeratu nuen, berriro ere argia ikustea, ez nuen nigatik egin, gurasoengatik baino. Gurasoak galdu nituen eta aurrera atera nintzen, ez dago gauza txarragorik bizia eman dizun pertsona galtzea, edo hazten ikusi zaituen aita nola hiltzen den ikustea baino, horrekin guztiarekin aurrera atera banaiz, hau oso erraza izango zen.

Oso latza zen, eta erraza zen gauza bakarra berriro erortzea zen, erori nintzen, bai, baina indarra hartu eta berriro altxatu eta aurrera ateratzea lortu nuen. Nire arazoa partekatzen zuen jendea ezagutu nuen, asko lagundu zidan parekatuta sentitzeko eta neukan arazoaz ohartzeko, soluzio bat emateko.

Gaur, nire betiko etxean bizi naiz, denborarekin, nire benetako lagunak berreskuratu ditut, galduta zeudela pentsatzen nuen, baina ni nintzen galdu nintzena, haiek beti egon ziren hor eta ez nintzen konturatzen. Familia bat baloratzea eta maitatzea zer den ikasi dut, eta benetan maitatzen nauen pertsona bat ezagutu dut, Aiara, berarekin familia bat osatzea, ikaragarri gustatuko litzaidake.

Ogibidea daukat, nire arazoa duten pertsoneri laguntzen diet, zoriontsu egiten nau honek, nola

lortzen duten hortik ateratzea, oso zaila bada ere.
“Egun on” alaitasunez esaten ikasi dut.